




Hil-autoa zirudien furgonetak. Hain zen handia isiltasuna, hain goibelak bidaiarien aurpegiak, ezen bazirudien benetan hileta baterako bidean zeudela. Naiara, futbol-taldeko entrenatzailea, ez zen inoiz festak animatzen zituena horietakoa, baina hartan, begiak errepidetik aldendu gabe, ez zuen hitzik esan herritik atera zirenetik. Ez, gezurra da hori; esaldi bat esan egin zuen entrenatzaileak Edurnek kopilotu lanak egin eta giroa animatzeko musika pixka bat eskatu zionean: erantzun zion *kirolak* entzun nahi zituela irratian. Handik aurrera, erabateko isiltasuna.

Edurne, taldeko kapitaina izanda, autoaren giroaren arduradun sentitzen zen, baina, egia esan, ez zegoen beraren esku. Edurneren atzean, Libe eta Amaia zihoazen, leihotik begira pentsakor. Grazia egiten zion Edurneri hain ezberdinak izanda hain lagun minak izatea: Libe makarra, bere septum *piercing*arekin eta mihi zorrotzarekin, Amaia goxo eta inuzentearen ondoan zihoan beti.

Atzeko ilaran ez ziruditen askoz animatuago. Marik, futbol-taldeko atezainak, kasko handiak zeuzkan buruan, eta bere munduan murgilduta zirudien. Haren ondoan, Maitane zegoen, aldizkari bat irakurtzen. Beti bezala, adats hori luzea perfektua zeraman, ile bakar bat ere ez lekutik



kanpo; manikura berria ere bazeukan, eta tente-tente zegoen eserita, zimur bat bera ere ez alkandoran.

«Inork ez luke esango oporretan goazenik», pentsatu zuen Edurnek, «eta gehien gustatzen zaiguna egitera, gainera...». *Sardina bat* kantatzen hasteko gogoaz sartu zitzaion giroa alaitzeko, baina susmatu zuen ez zuela erantzunik jasoko koruaren aldetik.

Denboraldiko azken entrenamenduan izan zuen Edurnek abenturaxo honetarako burutazioa. Azken finean, ikasturte luzea izan zen hura. Oso luzea. Taldekide batek ere ez zuen urte lasaia izan. Edurnek ere ez zuen festarako gogorik, ez pentsa, baina, lagunak hain triste ikusita, erabaki zuen uda ez zela goibel egoteko momentua. Udazkenetarako utziko zituzten tristurak.

Azken tanta futbol zelaian izan zen. Momentu alaia izan ohi zen azkeneko entrenamendua: Libek bromatxoaren bat prestatzen zion entrenatzaileari; entrenatzaileak haserre plantak egiten zituen, baina Intxaurra Futbol Taldeko kideek nabaritzen zioten grazia egin ziola barnean, nahiz eta aldi berean deskantsatzeko eta neskak bistatik galtzeko gogoaz ere igartzen zitzaion... Betiko kontua, alegia.

Egun hartan, ordea...

—Zer ekarri duzu gaur Naiara zur eta lur uzteko, Libe? —galdetu zion Edurnek.

—Hori. Emango al du nazka? Gosaria eztarrian daukat oraindik —bat egin zuen Garazik.

Libe begira geratu zitzaion Garaziri momentu batez. Historia korapilatsua zeukaten biek: elkarrekin ibili ziren ir-

teten; gero, ez; gero, berriro; eta, ikasturtearen amaieran, erabaki zuten behin betiko moztea. Lagunak izaten saiatu ziren, taldearen onerako, baina zaila egiten ari zitzaion Liberi. Oso zaila.

—Libe! —moztu zituen Marik bere pentsamenduak—. Ez diguzu zure plan burugabeko batekin atseginik eman behar? Gaurkoarekin kartzelan amaituko duzun beldur zara, ala?

—E... ez —erantzun zuen Libek—. Ez dut istilurik nahi. Benga, Naiarak esan digu zelaia hamar buelta emateko. Goazen.

Denak geratu zitzaizkion Liberi begira, ulertu ezinik, bera zelaian korrika hasten zela. «Libe, bakezalea?», pentsatu zuen Edurnek, «Libe kexatu gabe zelaira bueltak ematen!? Akabuaren akabua. Zerbait egin behar dut, AZKAR».

Eta bonbilla piztu zitzaion. Aitak udan jokatzen zen txapelketa bat aipatu zion aurreko egunean; txapelketa solidarioa edo horrelako zerbait antolatu behar zuten Bilbon... Hiruzpalau eguneko txapelketa baino ez zen, baina bazirudien intxaurrek behar zuten huraxe zela. Beren herri txikitik atera, elkarrekin egon, eta futboleko jokatu. Ez zegoen sendagai hoberik.

Bai, intxaurrak deitzen zioten bere buruari. Taldea Intxaurra deituta, haiek, bueno... intxaurrak ziren. Txantxa moduan hasitakoa hura oso normalizatua zeukaten ordu-rako.

Beraz, entrenamendua amaitzean, intxaur guztiak aldagelatan aldatzen ari ziren bitartean, Edurnek bere ideia bikaina azaldu zien laguneij, xehetasun guztiekin.

—Eta? Zer deritzozue? —Edurenek ezin zion emozioari eutsi.

—Nik, paso —esan zuen Libek.

Edurene zur eta lur geratu zen.

—Zer!?

—Sentitzen dut, Edurene —esan zuen Garazik—. Ni udalekuetara noa.

—Ni, gurasoen herri zirrargarri eta kosmopolitara —Marik—. Geure herriak New York dirudi haren ondoan.

—Amaia? —begiratu zion Edurenek, etsita.

—Ez dut uste galduko dugun txapelketa batera joateak zentzu asko daukanik —erantzun zion horrek—. Nik dakidala, oso talde onak joaten dira Bilbora...

—Neskak, hauxe behar dugulakoan nago —hasi zen Edurene—. Urte gogorra izan da; badakit ez dela gure momenturik gorena, baina elkarrekin...

—Edurene —moztu zuen Libek, zamarra jantzi eta armairua ixten zuen bitartean—. Ez gaizki hartu, baina ez da zure hitzaldi motibagarri baterako momentua. Gauza batzuk ezinezkoak dira, eta... ezinezkoak dira.

Garaziri azken begiradaxoa bota zion Libek.

—Bueno, gero arte! Hitz egingo dugu —esan zien in-txaurrei aldagelatik irten baino lehen.

Amaia Liberen atzetik atera irten zen, eta klubeko korridorean harrapatu zuen.

—Libe, itxaron. Beharbada arrazoi du Edurenek... Badakit Garazirekin moztea gogorra izan dela, baina ezin duzu

uda osoa pasatu zure logelan sartuta. Agian, ondo etorriko zaizu... zuri eta guztioi.

—Ez, Amaia, utz nazazu... Ez diet gurasoei dirurik eskatu nahi, eta, gainera, norik entrenatuko gaitu? Ziur nago Naiarak ez duela gurekin etorri nahiko...

—Klubarekin hitz egin dezakegu: ziur nago aurkituko duela babesleren bat ordaintzeko... Eta Naiarari dagokionez... galdetuko diogu behintzat, ala?

—Pf, ados —egin zuen barre Libek, bere entrenatzai-learen erantzuna ezezkoa izango zela jakinda—. Ez kezkatu: Naiarak baiezkua ematen badu, ni zuekin noa...

Beraz, Amaia eta Edurene Naiararekin hitz egitera joan ziren, itxaropen handirik gabe. Bere bulegoan aurkitu zuten gauzak udarako jasotzen.

—Ehem, Naiara... —hasi zen Amaia.

—Aha? —kopeta ilunarekin begiratu zien entrenatzai-leak.

—Pentsatzen ari ginen... zera... —esan zuen Amaiak, urduri.

—Ikusi dugu Bilbon txapelketa bat dagoela —jarraitu zuen Edurenek—, eta bertan apuntatzea gustatuko litzai-guke. Uste dugu taldearen moralala igotzeko ondo etorriko zaigula, eta...

—Ados.

—Eta, gainera... —jarraitu zuen argudiatzen Edurenek, harik eta Amaiak ukondokada bat eman zion arte. Orduan jabetu zen Naiarak baiezkua eman zuela.

—Benetan? —galdetu zion Amaiak.